ERANSKINA

HAUR HEZKUNTZAKO LEHEN ZIKLOA EMATEKO GAIKUNTZA IKASTAROA

0468559007 IKASTAROA: 0-3 ZIKLOKO GAIKUNTZA IKASTAROA

Herriko Ikastolen Konfederazioak egindako deialdia; eta Arrasateko Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak irakatsitakoa.

Hezkuntza sailburuordearen 2004ko irailaren 21eko Ebazpen baten bidez homologatu zen (2004ko urriaren 15eko EHAA). Homologazio-kodea: 0468559007.

Gainditu dutenen zerrenda:

ANEXO

CURSO DE HABILITACIÓN PARA LA IMPARTICIÓN DEL PRIMER CICLO DE EDUCACIÓN INFANTIL

CURSO 0468559007-: 0-3 ZIKLOKO GAIKUNTZA IKASTAROA

Convocado por Herriko Ikastolen Konfederazioa e impartido por la Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación de la Universidad de Mondragon.

Homologado mediante Resolución de 21 de septiembre de 2004, del Viceconsejero de Educación (BOPV de 15 de octubre de 2004) y cuyo código de homologación era 0468559007.

Relación de aptos

| NAN<br>*DNI* | Abizenak<br>*Apellidos* | Izena<br>*Nombre* |
|---|---|---|
| 16601874 | Lopez de Alda Reinares | Maider |

**7174**

AGINDUA, 2007ko azaroaren 21ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 2007-2008 ikasturteko Abelino Barriola sarirako dei egiten duena.

Hezkuntzaren eginkizun nagusietakoa izan ohi da, jakina denez, eskola-umeen irakurmena landu eta testu idatziak ahoz adierazten erakustea.

Hizkuntzaren ahozko adierazmena bat-bateko mintzamenez mamitzen da nagusiki. Hala ere, garrantzitsua da gaztejendeak behar den erraztasunez, ebakera zuzenez eta doinuera egokiz irakurtzen jakitea.

Behar hori are nabarmenagoa da jendaurreko erabilera-eredu zuzenak aski mugatuak dituzten eremu urriko hizkuntzen kasuan: hor sartzen da, bete-betean sartu ere, euskararen egoera.

Belaunaldi berriek euskaraz egiten ondo jakingo badute, boz goran prestu irakurtzen jakin beharko dute, besteak beste. Eta ondo irakurtzen, bistan denez, eskolan ikasi beharko dute nagusiki.

**7174**

ORDEN de 21 de noviembre de 2007, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convoca el premio Abelino Barriola para el curso 2007-2008.

Desarrollar la capacidad lectora de los escolares y adiestrarlos en la expresión oral de textos escritos es, como sabemos, una de las tareas educativas más importantes.

La expresión lingüística oral se desarrolla, fundamentalmente, a través del habla espontánea. No obstante, es importante que los jóvenes aprendan a leer con soltura, con una correcta pronunciación y una entonación adecuada.

Esa necesidad es aún más evidente en el caso de lenguas minoritarias en las que son bastante limitados los modelos de uso correcto del lenguaje en alocuciones públicas; el euskera, sin lugar a dudas, se halla dentro de esa categoría.

Si se pretende que las nuevas generaciones utilicen correctamente el euskera deberán, entre otras cosas, aprender a leer adecuadamente en voz alta. Aprendizaje que, evidentemente, debe llevarse a cabo mayormente en la escuela.

Irakasleen zeregina eta eragimena funtsezkoa da alor honetan: garrantzi handia du, alegia, irakasleak umeen irakurmen-lanketari zenbateko atentzioa eskaintzen dion eta zer-nolako irakaspidez baliatzen den.

Euskara jendaurreko komunikabideetara (irrati-telebistak, megafoniazko azalpenak e.a.) zabaltzen ari den honetan, bestalde, aski nabarmen agertzen ari da euskal belaunaldi berrien boz gorako irakurmena asko hobetu daitekeela. Hobekuntza-bideak huts-hutsik eskolaren esku ezin utz badaitezke ere, eragile nagusi eta garrantzitsua izan daiteke berau.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, behar honetaz jabeturik, xede hori lortzen lagunduko duten baliabideak indartu nahi ditu.

Honen haritik

EBATZI DUT:

***Artikulu bakarra.–*** 2007-2008 ikasturteko Abelino Barriola sarirako deia onartzea, Agindu honen eranskinean zehazten diren oinarri-arauen arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren gastu-espedienteen aurretiko izapidetzea araupetzen duen Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren ondorioetarako, agindu honetako diru-laguntzei buruzko ebazpena emateko garaian, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2008 urteko aurrekontu orokorretan kreditu egoki eta nahikoa egotea edo ez egotearen menpe geratuko da.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.–*** Oinarri-arauek jardunbide kontuan begiz jo gabeko orotarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak dioena hartuko da oinarri.

***Bigarrena.–*** Interesatuak deialdia eta oinarri-arauak inpugnatu ahal izango ditu, bai eta horien ondorioz Administrazioak egin ditzan egintza oro ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioko Legean ezarritako epean eta eran.

***Hirugarrena.–*** Agindu hau EHAAn argitaratzen den egunaren hurrengoan sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko azaroaren 21a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

La labor y la influencia de los profesores son fundamentales en este aspecto. La atención que el profesor preste al cultivo de la capacidad lectora de los alumnos es trascendental, así como los medios de los que se valga para ello.

En una época en la que el euskera está llegando a medios de comunicación públicos (radio y televisión, avisos por megafonía...), es notorio que la lectura en voz alta de las nuevas generaciones de vasco hablantes se puede mejorar considerablemente. Aunque dicha labor de perfeccionamiento no debe reducirse al ámbito escolar, éste sigue siendo un medio influyente e importante.

Así pues, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, consciente de esa necesidad, desea dedicar más medios a la consecución del objetivo anteriormente mencionado.

Por todo lo expuesto,

RESUELVO:

***Artículo único.–*** Aprobar la convocatoria del premio Abelino Barriola para el curso 2007-2008, de acuerdo con las bases que figuran como anexo a la presente Orden.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

A los efectos contemplados en la Orden de 26 de abril de 2007, del Departamento de Hacienda y Administración Pública, sobre tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Resolución de concesión de las ayudas de la presente Orden queda supeditada a la existencia de crédito adecuado y suficiente para el ejercicio 2008.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.–*** En todo lo no previsto por las bases en materia de procedimiento será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Segunda.–*** La convocatoria y sus bases, y cuantos actos administrativos se deriven de éstas, podrán ser impugnados por el interesado en el plazo y en la forma establecidos por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y la Ley de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

***Tercera.–*** La presente Orden surtirá efecto al día siguiente de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de noviembre de 2007.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

## I. ERANSKINA

### OINARRI-ARAUAK

1.– 2007-2008 ikasturteko Abelino Barriola irakurmen eta deklamazio-lehiaketa jakinarazten da.

2.– Helburu bi ditu Abelino Barriola sari-lehiaketak:

– Euskaraz irakurtze eta deklamatze kontuan emaitza hoberena lortzen duten ikasgelei berariazko saria eskaintzea.

– Deialdiaren helburu diren emaitzak lortzeko ahalegin berezia egin eta saria irabazten duten taldeen irakasle arduradunei berariazko saria eskaintzea.

3.– Lehiaketa honetan 2007-2008 ikasturtean hurrengo atalean zehazten diren mailetako ikasgelek parte hartu ahal izango dute.

Ezingo dute deialdi honetan parte hartu Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko legearen testu bateratuaren 50. artikuluko 5. paragrafoak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak aldatuak, ezarritako arrazoiren baten eraginpean daudenak. Honen haritik, Lege horrek aipatu artikuluan ezarritako arrazoiren baten eraginpean ez dagoela egiaztatzen duen zinpeko aitormena egin beharko du eskatzaileak.

4.– Eskola-umeen maila eta eredu desberdinak kontuan izanik, zazpi multzotan banatuko dira Abelino Barriola sari-lehiaketara aurkez daitezkeen ikasgelak:

| | | |
|---|---|---|
| A eredua | LMHko 5. eta 6. maila | Sari 1 |
| A eredua | DBHko 1. eta 2. maila | Sari 1 |
| B eredua | LMHko 5. eta 6. maila | Sari 1 |
| B eredua | DBHko 1. eta 2. maila | Sari 1 |
| D eredua | LMHko 3. eta 4. maila | Sari 1 |
| D eredua | LMHko 5. eta 6. maila | Sari 1 |
| D eredua | DBHko 1. eta 2. maila | Sari 1 |

Lehia multzo horietako bakoitzean jokatuko da eta ez parte-hartzaile guztien artean. Esan nahi baita, A ereduko LMHko 5. eta 6. mailakoak eredu eta maila berekoekin alderatuko direla. Berdin-berdin beste sei multzoetako bakoitzean.

5.– Sari-lehiaketaren zazpi arlo horietarako epaimahai bakarra izendatuko du Hezkuntza sailburuordeak. Ondoko erakunde edo esparru hauetariko ordezkari bana izango du epaimahai honek:

– Euskaltzaindia. Erakunde honen ordezkaria izango da epaimahaiburu eta berak erabakiko du botu-berdinketa gertatzen bada.

– EITB (Euskal Irrati-Telebista).

## ANEXO I

### BASES REGULADORAS

1.– Se convoca el concurso Abelino Barriola de lectura y declamación en euskera para el curso 2007-2008.

2.– Dos son los objetivos del concurso Abelino Barriola:

– Ofrecer un premio extraordinario a las clases que obtengan mejores resultados en los ámbitos de la lectura y la declamación en euskera.

– Conceder un premio extraordinario a los profesores responsables de las clases que hayan obtenido alguno de los premios, por su dedicación especial a la consecución de los fines que persigue la convocatoria.

3.– Podrán participar en este concurso durante el curso 2007-2008 las clases relacionadas en el párrafo siguiente.

No podrán concurrir a las ayudas reguladas por la presente Orden quienes se hallen incursos en alguna de las causas establecidas en el apartado 5 del artículo 50 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, modificado por la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. A este respecto, los solicitantes deberán presentar una declaración jurada en la que certifiquen que no se encuentran en ninguna de las causas descritas en el citado artículo.

4.– Atendiendo a los diferentes niveles y modelos de enseñanza, se establecen siete categorías para las clases que deseen presentarse al concurso Abelino Barriola:

| | | |
|---|---|---|
| Modelo A | Niveles 5 y 6 de EP | 1 premio |
| Modelo A | niveles 1 y 2 de ESO | 1 premio |
| Modelo B | Niveles 5 y 6 de EP | 1 premio |
| Modelo B | niveles 1 y 2 de ESO | 1 premio |
| Modelo D | Niveles 3 y 4 de EP | 1 premio |
| Modelo D | Niveles 5 y 6 de EP | 1 premio |
| Modelo D | niveles 1 y 2 de ESO | 1 premio |

Cada clase competirá con las de su propia categoría y no con todo el resto de participantes. Es decir, que los participantes de 5.º y 6.º de EP de modelo A competirán con el resto de grupos de igual modelo y nivel; se procederá de la misma manera en cada una de las seis categorías restantes.

5.– El Viceconsejero de Educación nombrará un único Tribunal para las siete categorías del concurso, que estará compuesto por los siguientes miembros:

– Un representante de Euskaltzaindia, quien actuará como presidente y dirimirá los empates que se produzcan.

– Un representante de EITB (Euskal Irrati-Telebista).

– Berritzeguneetako hiru Hizkuntza Normalkuntzako Teknikari.

– Euskal deklamazio-alorrean berariazko itzala duen jakitun bat.

– Euskara Zerbitzuko bi kide, hizpidez baina boturik gabe (hauetariko bat idazkari).

Epaimahaia sortzean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.5 artikuluan agindutakoari jarraituz, bermatu egingo da trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izango dela.

6.– Epaimahaiak honako puntuok izango ditu kontuan:

a) ikasgelak dira aztergai, ez banakako ikasle hau edo hura. Batez bestean ongien irakurtzen edota deklamatzen dakien ikasle-taldea sarituko da, beraz.

b) euskara batuan zein literatur euskalki batean idatzitako testuak aukeratu ahal izango dira irakurgai (ikus 9. oinarri-arauan ezinbesteko eta aukerako testuen zehaztasunak).

c) irakurmen eta deklamazio-maila hoberen hori zein taldek duen neurtzeko, ondoko irizpideok izango dira gidari:

– Abiadura handiegia saihestu egin behar da. Testuaren ezaugarriei lotuta erabaki behar da mantsoago ala bizkorrago irakurri, baina inoiz ere lasterregi egin gabe. Alboratu egin behar da zenbat eta arinago irakurri orduan eta hobe delako ustea.

– Irakurtzen arituko ez balira bezala irakurtzen saiatu behar dute ikasleek: sinesgarritasuna, testua sentitzea, testua irakurtzen gozatzea... Adin eta ezaugarri jakin horietako ikasleak izanik irakurle, beraiek sentitzeko moduko testuak aukeratzeak emaitzak asko hobetu ditzake arlo honetan.

– Isiluneak egin beharra dago. Isiluneak testuak eskatu ahala eta behar den bezala egiteak asko hobetzen du emaitza, goian aipaturiko sinesgarritasuna lortze aldera.

– Euskararen fonetika-legeak eta ebakera-arauak ahalik eta ongien errespetatu behar dira, erdal interferentziak ahal den neurrian ezabatuz. Beraz, eta besteak beste, «yeismo»ari aurre egingo zaio eta tz/ts/tx fonemen ebakera zuzena berariaz zainduko da.

– Erdal doinuari eta batez ere haren eraginez azentuak azkenaurreko silaban jartzeko joerari itzuri egiten saiatu behar da.

– Euskararen doinuera egokia, berdin du euskara batuan edo euskalkiren batean idatzitako testua irakurri, oso bereziki zaindu beharko da: aho-hizkuntzaren mintzamolde jatorra izango da patroi eta eredu (ez zen = etzen...); beraz, euskal hiztun onen ohiko erabilerari egin behar zaio kasu.

– Tres Técnicos de Normalización Lingüística de los Berritzegunes.

– Un experto de reconocido prestigio en el campo de la declamación vasca.

– Dos miembros del Servicio de Euskera, con voz pero sin voto (uno de ellos actuará como secretario del Tribunal).

En dicho nombramiento habrá de garantizarse la representación paritaria de hombres y mujeres con formación y capacidad suficiente, de acuerdo con el artículo 20.5 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Hombres y Mujeres.

6.– El Tribunal tomará en consideración los siguientes aspectos:

a) No se evaluará a los alumnos individualmente, sino a las clases en su conjunto. Se premiará, por lo tanto, al grupo de alumnos que mejor nivel de lectura y declamación demuestre en su conjunto.

b) Podrán leerse textos escritos en euskera unificado o en cualquier dialecto literario, tal como se indica en las especificaciones sobre textos de lectura obligada y de libre elección relacionadas en la base 9.

c) A la hora de valorar cuál es el grupo con mejor nivel de lectura y declamación, el Tribunal se atendrá a los criterios siguientes:

– Debe evitarse la lectura demasiado apresurada. La velocidad de lectura debe adecuarse a las características del texto en cuestión, desechando la idea de que la lectura es tanto mejor cuanto más rápido se realice.

– Los alumnos deben dar la impresión de no estar leyendo, dando al ejercicio de lectura credibilidad, sintiendo el texto, disfrutándolo... En este sentido, se mejoran mucho los resultados cuando se seleccionan textos adecuados a la edad y características de los lectores, textos que ellos puedan sentir.

– Es preciso respetar los silencios que el propio texto requiere. El hacerlo donde conviene y de la manera adecuada mejora notablemente el producto en cuanto a la credibilidad arriba mencionada.

– Se respetarán lo más estrictamente posible las normas fonéticas y de pronunciación del euskera, evitando en lo posible las interferencias lingüísticas: se evitará el yeísmo y se cuidará muy especialmente la pronunciación de los fonemas tz/ts/tx.

– Se evitarán las interferencias de acento, en especial la que tiende a la acentuación llana.

– Se concederá gran importancia a la correcta entonación del euskera, independientemente de que se lea un texto escrito en lengua unificada o en cualquier dialecto. Será patrón y modelo el lenguaje oral castizo, tomando como punto de referencia el uso normal de los buenos hablantes (ez zen = etzen).

– Naturaltasuna eta, kasuan kasuko testuaren arabera, enfasi-indarra kontuan hartzekoak dira orobat. Galdera markak normalean ez dira behetik gorako doinuan amaitzen. Harriduretan ere joera artifizialak saihestu egin behar dira inondik ere.

7.– Lehiaketa honetan parte hartzeko orria irakasleak bete behar du, ikasgelaren izenean.

8.– Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoak dioena betez, parte hartzaileak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari baimena ematen dio, eskabidean jasotako datuak bere informatika-fitxeroetan sar ditzan. Parte-hartzaileak, datuetara sartzeko, datuak aldatzeko eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi badu, Hezkuntza Sailburuordetzara jo dezake: Donostia kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz.

9.– Ikasturtearen lehen eta bigarren hiruhilekoan burutuko da irakurmen- eta deklamazio- lanketa. Lanketa horren ondorio gisa, bere ikastaldearen grabazio bat egingo du irakasleak kasetean edo CDan. Kasete edo CD hori, parte hartzeko orriarekin batera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailera bidaliko da eta 2008ko martxoaren 3rako honako helbide honetan egon beharko du:

Eusko Jaurlaritza (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila)

Euskara Zerbitzua-Abelino Barriola saria

Donostia kalea 1

01010 Vitoria-Gasteiz

10.– Grabazioa egiteko honako testu hauek irakurriko dira, ordena honetantxe:

a) Ezinbesteko testua: antzerki zati bat, pertsonaia adinbat ikaslek esana (III. eranskina).

b) Taldeak berak aukeratuko dituen hitz lauzko bi irakurgai, beste 2 ikaslek irakurriak; LMH 3-4 mailakoentzat bi ipuinetatik hartuak eta LMH 5-6 eta DBH 1-2 mailetakoentzat bi eleberritatik hartuak.

c) Taldeak berak aukeratuko dituen bi olerki, beste 2 ikaslek irakurriak.

11.– Grabazioak honako ezaugarriok izan behar ditu:

– Ikasgela bereko esatari hoberenen grabazioa izango da.

– Gehienik 6-8 minutu iraungo du grabazio osoak, tarteko isilaldiak barne, eta isilaldi hauetako bakoitza gehienez 15 segundokoa izango da.

– Grabazioaren hasieran ikasgelaren izengoitia entzungo da (urtetik urtera izengoitia aldatu eta leku edo toponimia erreferentziak saihestu egin behar dira). Izengoitiaren ondoren, irakurgai bakoitzaren aurretik, kasuan kasuko ikaslearen zenbakia.

– Se tendrán en cuenta, asimismo, la naturalidad y la enfatización adecuadas al texto. Hay que evitar, por tanto, las interrogaciones en final ascendente y las admiraciones artificiales.

7.– El/la profesor/a se encargará de formalizar la hoja de participación en este concurso en nombre de la clase.

8.– En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal, se autoriza al Departamento de Educación, Universidades y Educación del Gobierno Vasco para introducir en sus ficheros informáticos los datos recogidos en la solicitud. Los concursantes, si lo desean, pueden solicitar de la Viceconsejería de Educación (Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) el ejercicio de los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición de datos.

9.– La labor de preparación y ensayo de los textos se llevará a cabo durante los dos primeros trimestres del curso escolar. Una vez preparados, el/la profesor/a realizará una grabación en casete o CD a su clase. La casete o CD se enviará, junto con la hoja de participación, a la siguiente dirección antes del 3 de marzo de 2008:

Gobierno Vasco (Departamento de Educación, Universidades e Investigación)

Servicio de Euskera-Premio Abelino Barriola.

C/ Donostia-San Sebastián, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

10.– Cada casete incluirá la lectura de los textos siguientes, en este mismo orden:

a) Texto de lectura obligada: fragmento teatral, en voz de tantos alumnos como personajes tenga el mismo (véase el anexo III de las bases).

b) Dos textos en prosa a elección del grupo, leídos por otros 2 alumnos/as, extraídos de dos cuentos en el nivel 3.º-4.º de EP y de dos novelas en los niveles 5.º-6.º de EP y 1.º-2.º de ESO.

c) Dos poesías a elección del grupo, recitadas por otros 2 alumnos/as.

11.– Características de la grabación:

– Contendrá la grabación de los mejores declamadores de la clase.

– La grabación tendrá una duración máxima de 6-8 minutos, incluidos los silencios entre textos, los cuales no podrán superar los 15 segundos.

– Al comienzo de la grabación se escuchará el seudónimo de la clase (se adoptará uno nuevo cada curso y se evitarán las referencias toponímicas). Tras el seudónimo, y antes de cada lectura, el número del alumno que participa a continuación.

– Gutxienezko kalitatea izan beharko du grabazioak (ahotsak garbi entzun eta ulertzeko moduan).

12.– Aipatutako izengoiti berberori eta parte hartzen den kategoria (A-LMH 5-6, A-DBH 1-2, B-LMH 5-6, B-DBH 1-2, D-LMH 3-4, D-LMH 5-6 edo D-DBH 1-2) beste ezer ez da azalduko kasetean edo CDan, bi lekutan idatzita (kasetean edo CDan ezabatzen ez den tintarekin idatzita eta kutxaren bizkarrean).

13.– Kasete edo CD horrekin batera gutunazal itxi bat bidali behar da. Gutunazal horrek kanpoko aldean eta ageri-agerian hauxe bakarrik behar du idatzita:

– Izengoitia

– Kategoria: A-LMH 5-6, A-DBH 1-2, B-LMH 5-6, B-DBH 1-2, D-LMH 3-4, D-LMH 5-6 edo D-DBH 1-2.

Barruan, berriz, bi orri:

– Honi erantsitako parte hartzeko orria (II. eranskina) behar bezala beteta.

– Beste orri bat ikasgela osoaren zerrenda zenbakituarekin, grabazioan entzuten diren ikasleen izen-abizenak azpimarratuta.

Kasetea eta gutunazal itxia sobre handiago baten barruan bidaliko dira. Agindu honen 8. oinarri-arauan zehazten da nora eta noizko.

14.– Sariak honako hauek izango dira:

– Zazpi ikasgela hoberenentzat (kategoria bakoitzeko bana, normalean) Ipar Euskal Herrirako 3-4 eguneko bidaia. Bidaia horretara ikasgela osoak joango dira, ez bakarrik grabazioan entzuten diren ikasleak.

– Bi sari berezi.– Epaimahaiak urtero bi ikastetxe sarituko ditu. Lehiaketa honetan aurreko urteetan eta aurtengoan izandako partaidetza edo merezimendu bereziak sarituko dira atal honetan. Ikastetxe hauek ere aurreko pasartean aipatzen diren beste zazpi ikastetxek duten sari berbera izango dute. Ondoko irizpide hauek hartuko ditu kontuan epaimahaiak bi sari hauen izendatzeko:

Aurreko urteetan parte hartze nabaria izana.

Urte honetako parte hartzea.

Saria irabazteko finalisten artean egon izana.

Ikastetxearen egoera soziolinguistikoa.

Betiere ikastetxea da sariaren onura jasotzen duena eta berau saria zein ikasle talderi (gela bat) eskainiko zaion erabakiko duena.

– Saria irabazten duen ikasgela bakoitzeko irakaslearentzat astebete inguruko bidaia. Euskaldunok bezala bere hizkuntza indarberritzen saiatzen ari den edo ahozkotasunean ibilbide luzea egin duen herrialde batera egingo da bidaia.

– La grabación tendrá una calidad suficiente, de forma que las voces se oigan de forma nítida e inteligible.

12.– En la casete figurarán exclusivamente los siguientes datos: el seudónimo mencionado y la categoría en que se participa (A-EP 5-6, A-ESO 1-2, B-EP 5-6, B-ESO 1-2, D-EP 3-4, D-EP 5-6 o D-ESO 1-2), escritos tanto en la propia casete o CD como en el lomo de la caja.

13.– Junto con la casete o CD se enviará un sobre cerrado donde figurarán únicamente los siguientes datos, escritos en su parte exterior y bien visibles:

– Seudónimo

– Categoría: A-EP 5-6, A-ESO 1-2, B-EP 5-6, B-ESO 1-2, D-EP 3-4, D-EP 5-6 o D-ESO 1-2

Introducidas en el sobre, dos hojas:

– La hoja de participación (anexo II) adjunta a estas bases debidamente cumplimentada.

– Relación numerada de todos los alumnos de la clase, con los nombres y apellidos de los alumnos que participan en la grabación subrayados.

La casete o CD y el sobre cerrado se enviarán dentro de un sobre más grande a la dirección señalada en la base 8 de esta Orden, dentro del plazo estipulado en ella.

14.– Los premios serán los siguientes:

– Un viaje al País Vasco continental de 3 o 4 días de duración para las 7 mejores clases (en principio una de cada categoría). Participará en dicho viaje la totalidad de la clase, no sólo los alumnos cuyas voces figuran en la grabación.

– Dos premios especiales.– Todos los años el Tribunal premiará dos centros. En esta sección se premiarán la participación y merecimientos especiales del centro en este concurso tanto en los años precedentes como en el actual. Estos centros recibirán el mismo premio que los siete centros mencionados en el párrafo anterior. Para conceder estos dos premios el tribunal tomará en consideración los siguientes criterios:

El haber tenido una participación considerable en los años precedentes.

La participación en el presente año.

El haber estado entre los finalistas del concurso.

La situación sociolingüística del centro.

En cualquier caso es el centro el que recibe el premio y el que decide a qué grupo de alumnos (una clase) se le concederá el mismo.

– Un viaje de una duración aproximada de una semana para el profesor/a de cada clase ganadora. El viaje se realizará a algún país que, como el nuestro, trata de recuperar su lengua.

15.– Ikastetxe bakoitzak nahi adina kasete edo CD aurkez ditzake lehiaketara, baina ikastetxe bakoitzeko gela bakarrak jaso ahal izango du saria.

Epaimahaiak ikastetxe bereko ikasgela bat baino gehiago jotzen badu irabazle, horietatik saria jasotzeko merezimendu gehien duena zein den ere erabaki beharko du. Besteari/besteei zegokien saria, dagokion mailan hurrena geratu den beste ikastetxe bateko ikasgela bati egotziko zaio.

Multzoren batean kaseterik edo CDrik aurkezten ez bada edo aurkeztutako lanek epaimahaiaren ustez multzo horretarako gutxienezko mailarik ez badute, kasuan kasuko saria eman gabe utzi ahal izango da. Multzo batean eman gabe utzitako saria beste multzo batean eman ahal izango da, hartarako merezimendurik duenik badago.

16.– Aurkeztu diren kaseteetako edo CDetako irakurle onenekin CD bat argitaratuko da; CD horri ahalik eta zabalkunde handiena emango zaio eta ikastetxeetara eredu gisa bidaliko da. CD honen esplotazio eskubideak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hartzen ditu bere gain edozein lege eraginen aurrean.

17.– Epaimahaiak sarien ebazpen-proposamena helaraziko dio Hezkuntza sailburuordeari eta honek hartuko du ebazpena; deialdia argitaratzen denetik hasi eta sei hilabeteko epean EHAAn argitaratuko da.

Aipaturiko epean ebazpen espresurik ematen ez bada, bere kasetea edo CDa ez dela saritu ulertu behar du parte-hartzaile orok.

18.– Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak beharrezko neurriak hartuko ditu deialdi hau mamitzeko.

15.– Cada centro podrá presentar al concurso cuantas casetes o CDs desee, pero sólo podrá premiarse a una clase por centro.

Si el Tribunal declara ganadora a más de una clase del mismo centro, tendrá que determinar cuál de ellas tiene más merecimientos para recibir el premio. El premio correspondiente a la/s otra/s clases, se concederá a la clase siguiente dentro de la misma categoría y perteneciente a otro centro.

Si en alguna categoría no se presenta ninguna grabación o a criterio del Tribunal los trabajos presentados no llegan al nivel considerado como mínimo, los premios podrán ser declarados desiertos. En tal caso, los premios podrían ser adjudicados en otra categoría, si hubiese candidatos con los méritos suficientes.

16.– Se publicará un CD con las mejores lecturas de las grabaciones presentadas, el cual tendrá la difusión más amplia posible y será enviada a los centros escolares como modelo. El Departamento de Educación, Universidades e Investigación se reserva los derechos de explotación de dicho CD a todos los efectos legales.

17.– El Tribunal elevará Propuesta de Resolución de los premios al Viceconsejero de Educación para que adopte la Resolución oportuna, que será publicada en el BOPV en el plazo de seis meses desde la publicación de la convocatoria.

En caso de no dictarse resolución expresa en el plazo establecido al efecto, los grupos participantes deberán entender que sus respectivas grabaciones no han sido premiadas.

18.– La Dirección de Innovación Educativa adoptará las medidas oportunas para la correcta ejecución de esta convocatoria.

## II. ERANSKINA

2007-2008 ikasturteko
ABELINO BARRIOLA SARIAN PARTE HARTZEKO ORRIA

IKASTETXEAREN DATUAK

Izena: ..... Kodea □□□□□□
..... Tfnoa .....
P.Kodea: ..... Herria: ..... Lurraldea: .....

IKASGELAREN DATUAK

Taldearen izengoitia:

A eredua: LMH 5 □ LMH 6 □
A eredua: DBH 1 □ DBH 2 □
B eredua: LMH 5 □ LMH 6 □
B eredua: DBH 1 □ DBH 2 □
D eredua: LMH 3 □ LMH 4 □
D eredua: LMH 5 □ LMH 6 □
D eredua: DBH 1 □ DBH 2 □

IRAKASLE ARDURADUNA

Izen-abizenak .....

EZINBESTEKO IRAKURGAIA (Antzerki zati bat: ikus III. ERANSKINA)

TALDEAK AUKERATZEKO IRAKURGAIAK

1.– Prosako irakurgaiak:
1.1.– Izenburua ..... Egilea .....
Liburua ..... Liburuko zer orrialde? .....
1.2.– Izenburua ..... Egilea .....
Liburua ..... Liburuko zer orrialde? .....

2.– Olerkiak:
2.1.– Izenburua ..... Egilea .....
Liburua ..... Liburuko zer orrialde? .....
2.2.– Izenburua ..... Egilea .....
Liburua ..... Liburuko zer orrialde?.....

Arduradunaren sinadura

Ikastetxearen zigilua

Zuzendariaren sinadura

.....(e)n, 2008ko.....aren.....(e)an

ZINPEKO AITORMENA
Eskabide hau sinatzen dugunok zera aitortzen dugu: sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik ez dugula zigor administratibo edo penalik jaso, ez eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea dela bide inolako debekurik.

ARGIBIDEAK

1.– Orri hau, eskatzen diren datu guztiak beteta, gutunazal itxiaren barruan bidali behar da. Gutunazal horri kanpoko aldean bakar-bakarrik taldearen izengoitia eta parte hartzen duen kategoria jarriko zaizkio.

2.– Gutunazal itxia eta grabatutako kasetea edo CDa sobre handiago batean sartu eta helbide honetara bidali behar dira 2008ko martxoaren 3rako:

Eusko Jaurlaritza (Hezkuntza)
Euskara Zerbitzua - Nolega
(Barriola lehiaketa)
Donostia kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz.

3.– Ikastetxe bereko ikasgela bat baino gehiago aurkez daiteke. Kasu horretan, ikasgela bakoitzeko parte hartzeko orri bana bete behar da.

## III. ERANSKINA

A eredua - LMH 5-6
EZINBESTEKO IRAKURGAIA

BEGI BAKARREN BESTE BEGIA (Zumaiako institutua)
ESKOLA ANTZERKIA 8

| | |
|---|---|
| Maritxu | Kontxo, kontxo! Aizu eta zure aitonak Elkanorekin egin zuen bezala, emango diguzu edateko eta jateko zerbait? |
| Txunda | Nola ez! Euskaldun guztiak nire gonbidatuak dira. Zatozte, mahaia ia prest dago eta. Gainera beste bi gonbidatu aurkeztuko dizkizuet. |
| Joxe Mari | Beste bi gonbidatu? Txo eta Begi Bakar gure lagunak ote dira? |
| Txunda | Ez dut uste, ez dira euskaldunak eta. Baina zatozte, zatozte.<br>Orduan Txundaren hiru lagun eta bi merkatari azaltzen dira, janariz gainezka. |
| Piratak | Merkatariak! |
| Merkatariak | Piratak!<br>Borrokan hasteko keinua egingo dute. |
| Txunda | Geldirik denok! Nire gonbidatuak zarete eta nire gonbidatuen arteko borrokarik ez dut onartzen. |
| Merkatari 1 | Arrazoia du; baina gure kakaoa, zer? |
| Rasta 1 | Eta zertarako behar zenuten kakaoa? |
| Merkatari 1 | Ba, txokolatea egiteko. Europa guztian oso modan jartzen ari den janari gozoa. Orain dena galdu dugu. |
| Pantxike | Ba, ez zarete dena galdu duten bakarrak. Guk ere ontzia galdu dugu. |
| Maritxu | Eta tripulazioko bi lagun: Txo eta Begi Bakar. |
| Joxe Mari | Beno, Txo galdu dugula, ados. Baina Begi Bakar… horrekin ez dugu gauza handirik galdu. Lasaitasun ederra daukagu bera gabe! |
| Merkatari 1 | Honek ezin du honela gelditu. Galdutako ohorea berreskuratu behar dugu. |
| Rasta 1 | Ontzia eta kakaoa galdu zenutela esan duzu lehen. Ohorea ere galdu duzue? |
| Merkatari 2 | Baita hori ere! |
| Rasta 2 | Eta non galdu duzue hori? |
| Merkatari 2 | Hori ez da inon galtzen, baina galtzen denean nabaritzen da. |
| Maritxu | Ba guk ere galdu dugu ohorea. |
| Txunda | Ez didazue, ba, niri horrelakorik esan. |
| Pantxike | Baina hala da, eta ohorea berreskuratzeko borrokarako prest gaude. |
| Joxe Mari | Hori da, Pantxike, hori da. (Merkatariei) Aukeratu armak! |
| Merkatari 1 | Pistolak! |
| Joxe Mari | Ba, pistolek hitz egin dezatela. Pantxike… |
| Pantxike | Nola, Pantxike? Zergatik ni? |
| Maritxu | Ohorea berreskuratu behar dugulako. |
| Joxe Mari | Eta borrokarako prest zaudelako, eta pistolekin trebeena zeu zarelako. |
| Maritxu | (Pantxike besarkatuz) Ohore bat izan behar du zuretzat, Pantxike. |
| Joxe Mari | Aupa, zurekin gaude. |
| Txunda | Ez dut ezertxo ere ulertzen. Esplikatuko ote dit baten batek zertan ari zareten? |
| Merkatari 2 | Ba, erraza da. Elkarri bizkarra emanda jarri, hiru urrats egin, buelta eman eta tiro. |
| Rasta 1 | Eta? |
| Merkatari 1 | Eta kito! |
| Rasta 2 | Nola, eta kito? Ez dago beste sistemarik? Gu, gure artean haserretzen garenean, dantzan hasten gara, dantzan lehertu arte. Eta neka-neka eginda gaudenean, ba, goxo-goxo… |
| Merkatari 1 | Ezta pentsatu ere! Hau gauza serioa da. |

A eredua - DBH 1-2
EZINBESTEKO IRAKURGAIA

MUSU BATEN BILA (Durangoko Kurutziaga ikastola)
ESKOLA ANTZERKIA 5

| | |
|---|---|
| | Hau esan eta bikote bat sartzen da gelan. Hirurak begira gelditzen zaizkie, baina eurek, inori begiratu gabe, aurrera jarraitzen dute |
| Jon | Egunon! Romeo eta Julieta! |
| Aitor/Miren | Egunon! |
| Ander | Ezin dut ulertu nola egon daitezkeen bi pertsona hain kolgatuta. Alde guztietara elkarrekin joaten dira. Eta egun guztia pasatzen dute bata bestearen aurpegira begira. |
| Jon | Egia da, ez dute ezer egiten bata bestea gabe. |
| Gorka | Zuek biok bai artaburu parea! Munduan futboletik aparte badaude beste gauza batzuk ere! |
| Jon / Ander | Zeintzuk? |
| Gorka | Neskak, adibidez. |
| Ander | Eta zer egin dezakezu neskekin. Aspergarriak dira eta, beti euren gauzekin. Eta eurekin jolas egjn nahi baduzu, beti rollo bera ¡Ai, astoak zarete, gero! |
| Jon | Hori, hori! |
| Gorka | Zuen buruak konponezinak dira. |
| Jon / Ander | Bea, bea! (Mespreziozko keinuak eginez) |
| Miren | Kaixo, Gorka! |
| Gorka | Kontxo, esnatu zarete? |
| Miren | Asteburu honetan entzun dugun talde baten CDa ekarri dugu. Ipiniko diguzu? Gorkak zinta esku artean hartzen du |
| Gorka | Zer talde da?... Um… Zer? Hau ez dut ipiniko. Aparatua izorratu egingo litzateke! |
| Miren | Ez zaitez burugogorra izan eta noizbehinka aldatu musika mota, beti bera entzuten! |
| Gorka | Hara bestea, aldatu ezazu mutila, beti berarekin, ez zaitez burugogorra izan! Neska bi sartzen dira gelan eta, euren tokietarantz abiatzerakoan, Jonek baloia botatzen die. |
| Amaia | Beno, nahikoa duzue, e! Astapotro batzuk zarete! Kokoteraino nago zuekin! Elenak baloia jasotzen du lurretik. |
| Ander | Gu ez gara izan! |
| Elene | Baina zuk zer uste duzu, martzianoak garela ala? Ba, pentsatu ondo, nik ez zaituztet gehiago aguantzen eta benetan mobida honetaz gogoratu behar duzue puska batean! |
| Jon | (Ahotsa finduz) Ziur naiz zuzendariagana joango dela! |
| Amaia | Bai zera, martzianoek arma sofistikatuen bidez kontrola dezakete mundua, egin demostrazioa, Elene. Elenek makutotik jostorratz bat ateratzen du eta baloia zulatzera doanean Iker sartzen da. |
| Amaia | Zulatu, zulatu, Elene! |
| Iker | Ez! |
| Elene | Zu isil zaitez, honek ez dauka zerikusirik zurekin eta… |
| Iker | Bale, baina baloia nirea da. |
| Amaia | Berdin zaigu, zulatu ondoren, ordain dezatela. |
| Jon | Bai zera, falta zitzaiguna! |
| Miren | Neskek arrazoia dute, eskarmentu txiki bat behar dute. |
| Elene | Hori, hori! Nesken arteko elkartasuna. Ez dago gauza hoberik hauei aurre egiteko. |
| Ander | Julieta, isil zaitez, ez da zure arazoa! |
| Aitor | Isil zaitez zeu, eta berriro ez deitu Julieta Mireni, bestela muturra berotuko dizut. |
| Gorka | Beno, beno, zoratuta zaudete, ala? |
| Amaia | Ala! Orain baloia ez da inorena! |

B eredua - LMH 5-6
EZINBESTEKO IRAKURGAIA

AZTIA (Hondarribiako Talaia h.i.)
ESKOLA ANTZERKIA 8

Umeak azaltzen dira agertokian, sukaldeko atetik. Bazkaldu berriak dira eta tripa bero-bero dute. Ume 3k kartak ditu eskuetan.

Ume 1 Zein gozo zegoen pastela! Baina oilaskoa gehiegi erreta zegoen!

Ume 2 Ba niri horrelaxe gustatzen zait, erre-erreta…

Ume 3 Jolas gaitezen kartetan, Klofis Pofis aztia hasten den bitartean…

Aita eta ama sukaldetik ateratzen dira.

Aita Beno, sukaldea jasota dago.

Ama Bapo geratu naiz. Bai, badakit oilaskoa erdi erreta zegoela…!

Aitona Ikus dezagun telebista! Nire mago faboritoa hastear da eta!

Ama Aitona, ez proposatu horrelakorik, begiak gaizki jarriko zaizkigu eta!

Aitona Bale, bale, ez dut gehiago esango!

Ume 1 Orain telebistan Klofis Pofis aztia aterako da.

Ume 2 Bai eta esaten dute oso ona dela. Nire gelako guztiek ikusten dute.

Ume 3 Ea zer trukorekin datorkigun gaur! Beharbada erraza izango da geuk egiteko ere!

Aita Ba ni, gauza horiek ikustekotan, lanera noa. Emazkidazu mantala eta zapia, Josune, sukaldean utziko ditut.

Ama Tori! Eta ez nekatu gehiegi.

Aita Agur denoi!

Denak Agur!

Aitona Beno, piztu egingo dut telebista!

Aitonak telebista piztutakoan telebista-aurkezlea azaltzen da…

Aurkezlea Kaixo, ikusleok! Arratsaldeko hiru t'erdiak dira. Gaur emanaldi berezia prestatu dugu zuentzat. Gure magoak, Klofis Pofisek, bere trukorik onena eskainiko digu eta. Aurrera, Klofis!

Aztia Kaixo, lagunok! Hemen naukazue berriro ere nire magia erakusteko prest!

Aurkezleak mahai batean ekarten ditu magiarako behar dituen gauza guztiak eta joan egiten da.

Aztia Eskerrik asko, Maddi! Hona hemen behar dudan guztia: sagu-isats bat, sagar ustel bat, bi sagu zahar, 6 inurri-hanka, herensuge baten bihotza eta dinosauro-odola. Dena ondo nahastu ontzi batean eta ukendu hau edan ondoren, desagertu egingo naiz.

Desagertzeko brilantina botatzen du airera eta kapan biltzen da. Desagertzen denean telebistako aurkezlea azaltzen da...

Aurkezlea Benetan harrigarria, miraria ematen du honek! Txalo bero bat gure artistarentzat!

Ama telebistara hurbiltzen da.

Ama Oraintxe bertan itzaliko dut telebista! Desagertu, desagertu! Zenbat zorakeria! Hau, seguruenik, telebistako trukoren bat da.

Aitona Ni ere noizean behin desagertuko nintzateke... Ja, ja... Partida jokatzera noa jubilatuen etxera. Ea zenbat diru irabazten dudan gaurkoan!

Ama Ba ni, sukaldera… nire irratsaio kuttuna hastear da eta. Ala umeak, presta zaitezte kalera joateko!

Ume 1 Hori bai truko zoragarria!

Ume 2 Bai horixe! Matematikako azterketaren erdian desagertu ahal izanez gero… Hori magia hori!

Ume 3 Ba, egin dezagun… den-denarekin gogoratzen naiz.

Sartu-atera dabiltza umeak osagarriak lortzeko asmotan.

Ume 1 Sagu-isats bat, sagar ustel bat, edo bi… bi botako ditut badaezpada

Ume 2 Sagu zahar bat, 5 inurri-hanka.

Ume 3 Dinosauro baten bihotza eta herensuge baten odola.

Ume 1 Osagai guztiak bildu eta ondo nahastu ondoren… edan dezagun!

B eredua - DBH 1-2
EZINBESTEKO IRAKURGAIA

MUSU BATEN BILA (Durangoko Kurutziaga ikastola)
ESKOLA ANTZERKIA 5

| | |
|---|---|
| | Sorgina eta laguntzaileak sukaldean sartzen dira. Lur bere zereginetara bueltatzen da. |
| Sorgina | Gabon, Lur maitea, gaur sorpresatxo bat dut zuretzat |
| Lur | (Buelta emanez) Gorde itzazu sorpresak sonbrero azpian. |
| Langa | Lotsagabea halakoa! Nola ausartzen zara horrela hitz egiten! |
| Korner | Emango al diogu ostikada pare bat? |
| Lur | Ausar zaitez! (Koilara gogor hartuz eta bekozko iluna ipiniz) |
| Sorgina | Lasai zaitezte, ez dut ulertzen hainbeste ordu elkarrekin pasa ondoren nola ez zareten hobeto konpontzen. |
| Lur | Benetan, atso zahar honek izugarrizko aurpegia du! |
| Korner | Nola esan duzu? |
| Lur | Ez, ez, ezertxo ere ez, oso tipo jatorrak zaretela! |
| Langa | Oso ausarta zaude gaur gauean (Mesfidati). |
| Sorgina | Nahikoa da! Gaur benetan pozik nago eta ez nuke haserreturik bukatu nahi. Ziur naiz notizia hau jakitean ni bezain pozik jarriko zaretela. |
| Lur | Bota ba! (Aurpegi txarra jarrita) |
| Sorgina | Zu ere urduri zaude, ezta? Entzun. Bihar, bazkal ordurako nire semea etorriko da eta hainbat urtetan itxaroten egon garen ezkontza egingo dugu. Ez al da notizia zoragarria? |
| Lur | O, ez! (Nazka auzpegiz) |
| Langa eta Korner | Ondo, a ze suertea! Azkenean libratuko gara gogaikarri honetaz! |
| Lur | Beno, afal dezagun, goseak nago eta. Lur, afaria! |
| Langa | Mugi zaitez! |
| | Lurrek zopa zerbitzatzen du eta afaltzen hasten dira, izugarrizko zarata ateraz. Kornerrek zopatan ile bat aurkitzen du. |
| Korner | Zopa ilez beteta dago, zer nazka! Buafss! |
| Iker | (Eltze barrutik) Zeure ileak dira baina, txotxolo-ipurdi! |
| Korner | (Langari) Nola esan duzu? Ni txotxolo-ipurdi? |
| Langa | Nik ez dut ezer esan! (Harritu aurpegiz) |
| Korner | Ba, nik ondo entzun dut! |
| Sorgina | Isil zaitezte, ez dut gogorik zuen zaratak entzuteko eta! |
| | Hirurak zopa jaten hasten dira berriro. Lurrek kolpe bat ematen dio lapikoari eta barrutik... |
| Iker | Korner, kaiku arraioa, koipe-kirtena! |
| Korner | (Langari) Ni kaikua eta koipe-kirtena? |
| Langa | Zeuk hala badiozu… |
| | Kornerrek zeharo haserre, kolpe bat ematen dio kokotean. Langak lepotik ebatzen dio. |
| Sorgina | Ji, ji, ji, benetan barregarriak zarete! Irten kanpora borroka bukatzera, ji, ji, ji. Eta nekatzen zaretenean lotara! Burugogor halakoak! |
| Korner | Ikusiko duzu! Txikitu egingo zaitut! |
| Sorgina | (Oso haserre, Lurri) Baina zuk zer uste duzu txotxolo halakoa? Ni engainatuko nauzula? |
| Lur | Zer gertatzen da? Ez dut ezer ere ulertzen. |
| Sorgina | Hauek biak bai, baina ni neu ez, e! Atzo jaioa naizela uste duzu ala? Nor dago ezkutaturik lapiko horren barruan? Erantzun! |
| Lur | Hor barruan? Ka, ka, ka… kaka zaharra! |

D eredua - LMH 3-4
EZINBESTEKO IRAKURGAIA

NONTZEBERRI ENPARANTZA (Sopelako Zipiriñe herri ikastetxea)
ESKOLA ANTZERKIA 5

| | |
|---|---|
| Matxalen | Hori, hori, amona, ama egun guztian dago kafetegian sartuta señora itxurak egiten eta ezin dut berarekin jolastu, baina zuek biokin bai! |
| Martzelina | Horixe baietz! Basilio! Miren! Etorri hona sokari ematera! Oraintxe izango dira kontuak hemen! Ala morena!<br>Otzarak eta makilak alde batera utzi eta soka dantzan hasten dira hirurak. |
| Martzelina eta Petra | Salto-saltoka soka saltoan / neskatilen aspaldiko jokuan. / Jolas honek asko zoratzen nau, / bat, bi, hiru, lau, / sardina, bakalau. |
| Martzelina | Ikusten duzu? Guk oraindik gerra handia eman behar dugu! |
| Petra | Gure edadean holako zorakeriak egiten! Goazen, goazen, umea eskolara eraman behar dugu eta…<br>Baserritar bi agertzen dira dendan. |
| Peru | Eta, zegan saldu duk behia ba? |
| Haritz | Ez diat negozio onik egin, mila ta bostehun euro besterik ez. |
| Peru | Txarra ere ez, hezur hutsezko behi zahar bategatik. |
| Haritz | Bai, baina handia eta esnetsua izan duk gero! |
| Peru | Isilik egon hadi, gizona, isilik egon hadi! |
| Basilio | Egunon, gizonak! Gaur goiztar gero! |
| Haritz | Bai, Mungiako azokara joan behar diat eta… |
| Peru | Ekarridak soka on eta merke bat. |
| Miren | Onak bai, baina merkerik ez dago. Tori, hamabost euro da. |
| Peru | Laster goseak trageu, esnea eta okela beherantz eta beste guztia gorantz. |
| Basilio | Badakik ba, orain europearrak ere bagaituk eta… |
| Haritz | Mugitu hadi gizona, bestela animaliarik onenak salduta egongo dituk! |
| Peru | Ala bikote, aintzinako Arrietako itsuarena: ikusi arte!<br>Handik lasterrera mutil gzte bat agertzen da. |
| Oier | Egunon, Basilio; egunon, Miren. |
| Miren | Baita zeuri ere, halan ekarri! |
| Oier | Hara! Katalintxoren urtebetetzea da eta oparitxo bat egin nahi nioke, baina ez dakit zer erosi. |
| Miren | Beno, ta zuk zer sentitzen duzu beragatik ba? |
| Oier | Beno hori, ba, halako impulso bat da… |
| Miren | Zeuk esan duzu, gizona, Impulso desodorantea erosi! Tori, tori… |
| Basilio | Emakumearentzat da eta paper politean bilduko dugu.<br>Mutilak dendatik alde egiten du eta, bere maitearekin elkartzean, kantari hasten da. |
| Oier | Katalintxu lora ederra / zeu krabelina fina / aintzina egin jatan / zeuganako mina. |
| Katalintxu | Ene, Oier! Zein erromantiko zatozen! |
| Oier | Bai ba, eta oparia ekartzea ere ez zait ahaztu. Tori laztana, zeuretzat! |
| Katalintxu | Oparia niretzat! Zer izango ote da? Urrezko eraztuna, zetazko zapia… A! Desodorantea da! Baina zer uste duzu zuk, ez naizela garbitzen eta hatsa dariola nagoela ala? Txerria zeu izango zara gero! |

D eredua - LMH 5-6
EZINBESTEKO IRAKURGAIA

AMONA HONEKIN… KONTUZ (Legazpiko Domingo Agirre h. i.)
ESKOLA ANTZERKIA 8

Zaharren Egoitzan. Amonak eserita daude, haien artean Martzelina eta Anastaxi.

| | |
|---|---|
| Anastaxi | (Beste lagunei) Martzelina duzue hemen. Gurekin egingo ditu egun batzuk. |
| Gotzone | Nola, ba? Zure etxetik bota egin zaituzte ala? |
| Martzelina | (Haserre bizian) Jakin ezazu nire familiako guztiak negar batean utzi ditudala! Nik neuk erabaki dut hona etortzea! |
| Gotzone | Barkaidazu, emakume, ez nuen horrelakorik esan nahi. Eta, zer? Dantza ikastaroan parte hartzeko prest? |
| Martzelina | Bai, bai, horregatik etorri naiz. |
| Ana Mari | Hori entzun nahi nuen, azkenean ni bezalako norbait aurkitu dut. Hau poza, hau poza! |
| Gotzone | Ana Mari, txoriburu hori! Lasaitu, horiek ez dira amona batek egiteko mugimenduak! |
| Ana Mari | (Anastaxi hartzen du) Zatoz nirekin, azukre koxkor hori eta paradisu bat aurkituko duzu! |
| Gotzone | Goazen hemendik, bestela nagusiak erotu egin garela pentsatuko du. |
| Martin | Agur, andereñoak. Zuek ardoa bezala, zenbat eta urte gehiago orduan eta gozoago. |
| Ana Mari | Ai, Martin, zu beti bezala. Nahi baduzu, gero eskeletoa mugi dezakegu elkarrekin. |
| Martin | Zurekin edozein lekutara, ene bihotzeko pinpili-panpala!<br>Eskutik helduta daude eta lagunak tiraka ari zaizkie elkar banatzeko. Azkenean emakumeak irten eta gizonak eseri egiten dira. |
| Patxi | Zer ikusi dute nire begiek? Emakume hori, hori bai emakume ederra! Berria da, ezta? |
| Inaxio | Bai, Martzelina Ugarte da. Dirudienez oso martxosoa da eta hemengo dantza ikastaroaren berri izatean, bere familia utzi eta hona etorri da. |
| Patxi | Betiko?... Egia balitz… |
| Inaxio | Hori ez dakit. Berari galdetu eta argituko dizkizu zalantzak. |
| Agustin | Ui, ui, ui, zerbait arraroa sumatzen ari naiz. Baina, Patxi, unetxo batean besterik ez duzu ikusi, eta horrela? |
| Joxe Mari | Bai, Agustin, halaxe da gure Patxi. Bihotzeko kontuetan hain sentikorra... Behin, telebistan ikusi zuen neskatxa batekin maitemindu zen eta denbora luzean jasan behar izan genuen bere erromantizismoa. |
| Agustin | A, bai, gogoan dut! Neskatxa nire, non aurkituko zaitut? Zergatik sartu zara nire bihotzean? Ustekabean utzi nauzu, ikusi zintudanetik ez dut lorik egiten, ai ene arrosa maitea! |
| Patxi | Nitaz barre egin nahi baduzue, egin lasai, baina hau desberdina da. Hau egiazko maitasuna da. Sentitu egin dut, nire barnean sentitu dut. |
| Inaxio | Ba, hor duzu zure bihotzeko arrosa. Esaiozu hau guztia berari, eta zeurea betiko.<br>Lagunak barrezka ari dira. Martzelina beste lagunekín sartzen da. Patxi oso urduri dago. Lagunek Martzelinagana bultzatzen dute. |
| Patxi | Egunon, andrea. Nik, nik, nik… |
| Martzelina | Egunon, jauna! Nor zara zu? |
| Patxi | Ni, ni, ni… Gero arte. |
| Lagunak | Itxoin, Patxi, itxoin. |
| Inaxio | Uste dut hau ez dela txantxetakoa. Maitemindu egin ote zaigu Patxi? Ikusiko dugu, ikusiko dugu… |

D eredua - DBH 1-2
EZINBESTEKO IRAKURGAIA

AMONA HONEKIN… KONTUZ (Legazpiko Domingo Agirre h. i.)
ESKOLA ANTZERKIA 8

| | |
|---|---|
| | Etxe bateko jangelan, aita, ama, alaba, semea eta amona afaltzen ari dira |
| Alaba | Ama, gaur lagunekin geratu naiz. Gauean diskoteka saio berezia antolatu dute ikasketa bidaiarako dirua atera nahian, eta lagunekin joango naiz. |
| Ama | Ai ene! Hasi gara, ba, diskoteka, diskoteka... Banekien lasaitasuna bukatuko zitzaigula etxe honetan. Ai ene! |
| Martzelina | Beno, Begoña! Ez da horrenbesterako. Gure neskatoak eskeletoa mugitu nahi du, besterik ez! Nik ere, gazteago banintz... |
| Aita | Isilik egon, ama, zure laguntzarik ez dugu behar, guk erabakiko dugu etxe honetan zer egin behar den. Amona, ilobari keinu bat eginez, a1txatu eta badoa |
| Martzelina | Bale, Pello, bale! Ogi bila noa. (Eta jangelatik ateratzen da ipurdia alde batetik bestera mugituz eta kantatzen) Dale, dale, benga, benga, erritmo hori, benga, benga. |
| Aita | Nire amak, azken bolada honetan tontokeria piloa egiten du. Haurtzaroan dagoela ematen du. |
| Semea | Ez, aita, ez da hori. Amama martxosoa dugula, besterik ez. Super guay, ezta, Olatz? Agian amama zurekin badoa, Olatz? Agian, amama zurekin badoa, gurasoek diskotekara joateko baimena emango dizute. Eta agian zuk baino ere gehiago ligatuko luke. |
| Alaba | Zer esan nahi duzu? Kakati halakoa! Jakin ezazu nik ez dudala ligatu nahi. |
| Semea | A, ez? Eta Andoni ikusten duzun bakoitzean jartzen duzun tuntun aurpegi hori? Andoni, Andoni... (eta altxatzen da keinuak egiten, bere arreba haserretu nahian) |
| Alaba | Ama, esan isiltzeko, mesedez. Beti nirekin sartzen da. |
| Ama | Ander, utzi bakean zure arreba! |
| Semea | Bai ama, bakean utziko dut. (bere arrebari) Andoni, Andoni (keinuka jarraitzen du)<br>Amona ogiarekin sartzen da |
| Aita | Eseri, ama, eseri. Hurrengoan neu altxatuko naiz. |
| Martzelina | Zer ba? Oraindik sasoia badut eta. (ilobari) Afaldu maitea, afaldu ongi, gero dantza asko egiteko energia beharko duzu. |
| Ama | Baina, Pello, esan zure amari gure gauzetan ez sartzeko! |
| Aita | Beno, ama, afaldu ondoren hitz egingo dugu alabarekin. Utzi, erabakia guk har dezagun. Zure laguntza beharrezkoa bazaigu eskatuko dizugu. Ulertzen? |
| Semea | (Irribarrez) Nik uste dut gaur ametsetan egingo duzula dantza (arrebari).<br>2. ekitaldia. Amona jangelan dago kaltzeta egiten. Belarrietan kaskoak jarrita, kantatzen ari da. Txirrina entzuten da eta ama gelan sartzen da. |
| Ama | Baina inork ez du entzuten etxe honetan? Beti den-dena egitea tokatzen zait. Kaixo, Anastaxi, gure ama hor duzu. Pasa, pasa zaitez. |
| Anastaxi | Egunon, Martzelina! Zein zintzo zauden! Kaltzeta egiten? |
| Martzelina | Bai, amona bati ez zaio besterik geratzen eta…<br>Ama joaten da eta lagunak hitz egiten geratzen dira. Amonak, berehala, kaltzeta utzi eta musika erakusten dio Anastaxiri |
| Martzelina | Begira, Anastaxi, Su Ta Gar-ren azken diskoa. Entzun, entzun... (Kaskoak Anastaxiri jartzen dizkio) |
| Anastaxi | Ui, ui, kendu, kendu, gorra utziko nauzu, ez zait asko falta horretarako eta. Ene, Maria eta Jose, emakume hau beti holako gauzekin... Zoraturik al zaude?<br>Altxatu eta dantzan hasten da berriro. |
| Anastaxi | Eseri, Martzelina, eseri, horrela jarraituz gero ospitalera eramango zaitugu aldaka atera zaizulakoan … Gainera azken berriak dakarzkizut. |
| Martzelina | Kontatu, kontatu, zer berri dakarzu ? |
| Anastaxi | Ba, Zaharren Egoitzara erizain berri eta gaztea etorri omen da eta astean bi egunetan salsa dantzatzen irakatsiko omen digu. |